


PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 AÑOS

PRUEBA COMÚN

PRUEBA 2009



EUSKARA

PROBA

ERANTZUNAK





Argibideak

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa
Frogaren iraupena: 45 minutu

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

ZIENTZIA ETA FROGA ZIENTIFIKOAK

MARIAN IRIARTE-k "Berria"-n idatzitako artikulutik moldatua

(...) Badira gaur egunean informazio-iturri ugari, eta zalantzarik gabe **eskuragarriena** Internet bera da. Duela urte gutxi arte, informazioa jasotzeko liburuetara jo behar izaten genuen, eta nire irakasle batek esaten zuen moduan, «libururik okerreana, beti izango da apunterik onenak baino hobea». Liburu batean jarritakoa, gutxienez idazleaz gain beste batek edo batzuek irakurri eta zuzendutakoa da. Garbi dago ez dugula teknologia berrien aurka jo behar, eta teknologia hauek eskaintzen digutenaz **baliatzen** jakin behar dugula. Baina irizpide kritikoak norberarena izan behar du, eta ez dugu «**sarean**» aurkitutako edozer aintzat hartuko kristau ikasbidea bailitzan.

Hainbat eta hainbat mito sasizientifiko dago denon ahotan, eta mito urbanoen antzekoak barreiatzen dira gehienetan oinarri zientifiko handiegirik gabe. (...). Gorago Interneten aurki daitezkeenak aintzat hartu baino lehen irizpide kritiko minimoa behar dela esan badut ere, gaurkoan juxtu kontrakoa frogatzeko balio duen informazioaz baliatuko naiz. BBCk duen orrialde batean hainbat eta hainbat mito hori baino ez direla aurkitu dut.

Zenbat aldiz entzun dugu egunean 6-8 basokada ur edatea oso komenigarria dela? Zer froga zientifiko dago horren azpitik? Bada, dirudien ez dago gauza handirik esaldi **horri** eusteko. Ura hartzea esaten dugunean, ez du nahita ez ur likido **gardena** esan nahi. Gure gorputzak ura behar du, baina hainbat iturritatik jaso dezake ur hori, hau da, gure dietan modu askotan hartzen dugu gure gorputzak behar duen ur hori. Eta zertarako dugu, bada, gizakiok egarriaren sentazioa? Bada, gure gorputzak ura noiz behar duen jakiteko. Beraz, ura edatea ona baldin bada ere, inon ez dago frogatuta hainbeste basokada ur hartzeak gure gorputzari mesede handirik egiten dionik. (...)

Dena den, gure eskura hainbeste informazio daukagun honetan, izan gaitezen neurri batean gutxienez **eszeptiko** samarrak, eta gauzak bere horretan itsu-itsuan sinistu baino lehen, gutxienez zalantza izpiren bat jar diezaiegun.



GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazonatu zure erantzuna: (2p)
 - a. Non argitaratu da?
 - b. Nori zuzentzen zaio?
 - c. Zer da, azalpena, narrazioa, edo argudioa?
 - d. Zein testu-generorekin identifikatzen duzu?

2. Azaldu esaldi baten bidez zein den testuaren ideia nagusia (1,5p)

3. Laburtu esaldi bakar baten bidez paragrafo bakoitzaren oinarritzko ideia (2p)

1. paragrafoa	
2. paragrafoa	
3. paragrafoa	
4. paragrafoa	

4. Azaldu testuan azpimarratuta dauden honako esapideen esanahia. (1,5p)

“irizpide kritikoak norberarena izan behar du”	
“edozer aintzat hartuko kristau ikasbidea bailitzan”	
“mito sasizientifiko”	
“hori baino ez direla aurkitu dut”	
“honetan”	




5. Eman hitz hauen (letra beltzez nabarmenduta) sinonimoak edo ia sinonimoak. Sinonimoek sinonimo izan behar dute testuan duten esanahiarekin. (1 p)

eskuragarri	
baliatzen	
“sarean”	
gardena	
eszeptiko	

6. Testuan grisez nabarmenduta agertzen dira zenbait hitz edo hitzen letrak (morfemak). Erantzun elementu horiekin erlazionatutako honako galderak: (2 p)
- Zein da elementu horien funtzioa testuan? Nola deritzo funtzio horri?
 - Elementu horiek beste hitz edo esaldiei erreferentzia egiten diete. Adierazi honako koadroan zeinei.

Hitza edo morfema	Zeri egiten diote erreferentzia
eskuragarriena	
Norberarena	
Hori	
Horri	



FROGAREN ASKABIDEA EUSKARA (2009 maiatza)

PUNTUAKETA

1 GALDERA	2 PUNTU
2 GALDERA	1,5 PUNTU
3 GALDERA	2 PUNTU
4 GALDERA	1,5 PUNTU
5 GALDERA	1 PUNTU
6 GALDERA	2 PUNTU

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

ZIENTZIA ETA FROGA ZIENTIFIKOAK

MARIAN IRIARTE-k "Berria"-n idatzitako artikulutik moldatua

(...) Badira gaur egunean informazio-iturri ugari, eta zalantzarik gabe **eskuragarriena** Internet bera da. Duela urte gutxi arte, informazioa jasotzeko liburuetara jo behar izaten genuen, eta nire irakasle batek esaten zuen moduan, «libururik okerrera, beti izango da apunterik onenak baino hobea». Liburu batean jarritakoa, gutxienez idazleaz gain beste batek edo batzuek irakurri eta zuzendutakoa da. Garbi dago ez dugula teknologia berrien aurka jo behar, eta teknologia hauek eskaintzen digutenaz **baliatzen** jakin behar dugula. Baina irizpide kritikoak norberarena izan behar du, eta ez dugu «**sarean**» aurkitutako edozer aintzat hartuko kristau ikasbidea bailitzan.

Hainbat eta hainbat mito sasizientifiko dago denon ahotan, eta mito urbanoen antzekoak barreiatzen dira gehienetan oinarri zientifiko handiegirik gabe. (...). Gorago Interneten aurki daitezkeenak aintzat hartu baino lehen irizpide kritiko minimoa behar dela esan badut ere, gaurkoan juxtu kontrakoa frogatzeko balio duen informazioaz baliatuko naiz. BBCk duen orrialde batean hainbat eta hainbat mito hori baino ez direla aurkitu dut.

Zenbat aldiz entzun dugu egunean 6-8 basokada ur edatea oso komenigarria dela? Zer froga zientifiko dago horren azpitik? Bada, dirudienez ez dago gauza handirik esaldi horri eusteko. Ura hartzea esaten dugunean, ez du nahita ez ur likido **gardena** esan nahi. Gure gorputzak ura behar du, baina hainbat iturritatik jaso dezake ur hori, hau da, gure dietan modu askotan hartzen dugu gure gorputzak behar duen ur hori. Eta zertarako dugu, bada, gizakiok egarriaren sentazioa? Bada, gure gorputzak ura noiz behar duen jakiteko. Beraz, ura



edatea ona baldin bada ere, inon ez dago frogatuta hainbeste basokada ur hartzeak gure gorputzari mesede handirik egiten dionik. (...)

Dena den, gure eskura hainbeste informazio daukagun honetan, izan gaitezen neurri batean gutxienez **eszeptiko** samarrak, eta gauzak bere horretan itsu-itsuan sinistu baino lehen, gutxienez zalantza izpiren bat jar diezaiegun.

GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazonatu zure erantzuna: (2p)

- Non argitaratu da?** Berria egunkarian, baina edozein egunkari zein aldizkarikoa ere izan daiteke.
- Nori zuzentzen zaio?** Edozein irakurleri. Ez du irakurle mota bereziturik bilatzen.
- Zer da, azalpena, narrazioa, edo argudioa?** Argudioa da
- Zein testu-generoekin identifikatzen duzu?** Zutabe bat da, hau da egunkariko sekzio finko bat aldiro-aldi errepikatzen dena eta normalean idazle berak idatzia. Orokorrago hitz eginda, iritzi artikulua da.

2. Azaldu esaldi baten bidez zein den testuaren idea nagusia (1,5p)

Oinarri sendorik gabe ahoz aho transmititzen diren mito sasizientifiko asko dago, eta horien aurrean ispiritu kritikoa izan behar da eta ez onartu besterik gabe.

3. Laburtu esaldi bakar baten bidez paragrafo bakoitzaren oinarrizko ideia (2 p)

1. paragrafoa	Informazioaren eta teknologia berrien garaian bizi bagara ere, ispiritu kritikoz hartu behar dugu iturri ezberdinetatik datozen informazioak.
2. paragrafoa	Mito sasizientifiko asko dabil ahoz aho, baina kritikoak izan beharrean, kontrakoa gertatzen da.
3. paragrafoa	Adibidez, ez dago inon frogatuta ur basokada kopuru jakin bat edatea ona denik.
4. paragrafoa	Garunaren kapazitatearen %10 baino ez duguna aprobetxatzen ere ez dago inon frogatuta
5. paragrafoa	Ez dugu etortzen zaigun informazio guztia besterik gabe sinistu behar



4. Azaldu testuan azpimarratuta dauden honako esapideen esanahia.
(1,5 p)

“irizpide kritikoak norberarena izan behar du”	Jasotzen dugun informazioa baloratzeko lana pertsonala da eta ez da beste inoren esku utzi behar.
“edozer aintzat hartuko kristau ikasbidea bailitzan”	Aurkitzen dugun informazioa ez da besterik gabe sinistu behar, egi erlijiosoak sinisten diren bezalaxe.
“mito sasizientifiko”	Zientzia itxura duten baieztapenak, baina oinarri zientifikorik gabe.
“hori baino ez direla aurkitu dut”	Mito hutsak direla konprobatu dut.
“honetan”	Garai honetan

5. Eman hitz hauen (letra beltzez nabarmenduta) sinonimoak edo ia sinonimoak. Sinonimoek sinonimo izan behar dute testuan duten esanahiarekin. (1 p)

eskuragarri	Erdiesgarri, lorgarri, jasogarri.
baliatzen	Probetxatzen, erabiltzen.
“sarean”	Interneten, “Web-ean”.
gardena	Zeharrargitsua, zehargia, ..., argia.
eszeptiko	Sinesgaitz, sinesgogor, mesfidati.

6. Testuan grisez nabarmenduta agertzen dira zenbait hitz edo hitzen letrak (morfemak). Erantzun elementu horiekin erlazionatutako honako galderak: (2 p)

a. Zein da elementu horien funtzioa testuan? Nola deritzo funtzio horri?

Elementu horien funtzioa testuari kohesioa (lotura testuko elementuen artean) ematea da eta errepikapenak ekidin. Funtzio horri anafora deritzo.

b. Elementu horiek beste hitz edo esaldiei erreferentzia egiten diete. Adierazi honako koadroan zeinei.



Hitza edo morfema	Zeri egiten diote erreferentzia
eskuragarriena	“informazio iturri”
Norberarena	“irizpide kritikoak”
Hori	“mito”
Horri	“egunean 6-8 basokada ur edatea oso komenigarria dela”



GALDERA ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO HARREMANA:

Gald.	Ezagutza adierazleak
1	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak, eta horien formatua antzematea.
2	3.1. Miltzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
3	3.1. Miltzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea. 2.4. Testuen edukia zehatz jasoko duen laburpena egitea. 2.5. Testu baten ideiak eskematizatzea, nagusiak direnak bigarren mailakoetatik bereiziz eta horien arteko hierarkia ezarriz.
4 5 6	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak (lexikoak), eta horien formatua antzematea..